



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

## 2012KO ABENDUAREN 3KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. Bateriaezintasunen Behin Behineko Batzordeak egindako irizpena, legebiltzarkide jaun-andreek izan litzaketen bateraezintasun-zioei buruzkoa. Eztatbaida eta behin betiko ebazpena.

Irizpena onetsi da.

## ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 3 DE DICIEMBRE DE 2012

1. Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión Provisional de Incompatibilidades en relación con las posibles causas de incompatibilidad en las que pudieran incurrir las parlamentarias y los parlamentarios.

Se aprueba el dictamen.





## 2. (berria) Adierazpen instituzionala, emakumeenganako indarkeriaren kontrakoa. [10\11\05\00\0002]

Presidenteak adierazpena irakurri du.

"Teresa Egurrolaren hilketak dela-eta, ustez emakumeen aurkako beste indarkeria-ekintza baten biktima izan baita, Eusko Legebiltzarrak bere kondena irmoa adierazten du eta babesaren helarazten die biktimaren senide eta hurbilekoei.

Hilketa hau 'Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna' izan eta bi egunetara gertatu da. Alde horretatik, Eusko Legebiltzarrak indarkeria matxistaren aurkako gaitzespena agertu du. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako edozein adierazpen gaitzesten dugu, dimentsio orotan (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai eta sexismo mota oro ere, arinenak eta normalizatuenak barne, esaterako: sexuaren araberrako rol estereotipatuak; neska eta emakumeen ikusezintasuna bizitzako hainbat arlotan, bigarren mailara zokoratuz; sexu eta ugalketa eskubideen ezeztatpena; edota pertsonetikiko diskriminazioa euren sexu-aukeraren edo genero identitatearen ondorioz.

Belaunaldi gazteagoen artean emakume nahiz gizonen arteko desberdintasunak eta emakumeenganako indarkeria gailenduta daudelako mitoa baino harago, errealitateak erakusten digu gazteen artean dagoen indarkeria matxista, baita adinez txikikoen artekoa ere, benetan kezagarria dela.

Horrenbestez, ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonezkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu gabe, ez eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harreman afektibo eta sexualak eraikitzeke modua aldatu gabe ere. Horregatik, erakundeok konpromiso aktiboa izan behar dugu gazteekin lan egin eta indarkeria matxista prebenitzeko, ahalegina eginez eta beharrezkoak diren baliabideak eskainiz. Hori horrela, errespetuan, askatasunean, autonomian eta berdintasunean oinarritutako harremanak eraikitzen lagunduko diegu gazteei.

Prebentzioko prozesu honek erreferentziatzeko eredu berriak sortzea ahalbidetzen du, hain zuzen ere, mutilek eta gizonek pribilegiozko jarrerarik eduki ez dezaten nesken eta emakumeen aldean, izan ere, indarkeria matxistaren jatorria emakumeen

## 2. (nuevo) Declaración institucional contra la violencia hacia las mujeres. [10\11\05\00\0002]

La presidenta da lectura a la declaración.

"Ante el asesinato de Teresa Egurrola, presuntamente víctima de un nuevo acto de violencia contra las mujeres, el Parlamento Vasco manifiesta su firme condena y traslada su apoyo a los familiares y allegados de la víctima.

Este asesinato se ha producido tan sólo dos días después del 'Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres'. En este contexto, el Parlamento Vasco expresa su firme repulsa a la violencia machista. Manifestamos nuestro rechazo hacia cualquier expresión de violencia contra las mujeres en todas sus dimensiones (física, psicológica, sexual, simbólica...), así como hacia cualquier forma de sexismo, incluidas las más sutiles y normalizadas, como la asignación de roles estereotipados por sexos, la invisibilización de niñas y mujeres en los distintos ámbitos de la vida y su relegación a papeles secundarios, la negación de sus derechos sexuales y reproductivos o la discriminación hacia las personas por sus opciones sexuales o su identidad de género.

Lejos del mito de que en las generaciones más jóvenes la desigualdad entre mujeres y hombres y la violencia contra las mujeres están superadas, la realidad nos muestra que la incidencia de la violencia machista en la población joven es verdaderamente preocupante.

Pero es imprescindible comprender que no se puede luchar contra la violencia hacia las mujeres sin abogar por un cambio profundo de los modelos de masculinidad y feminidad, así como de la manera en que se construyen las relaciones afectivas y sexuales entre las mujeres y los hombres. Esto exige el compromiso activo de trabajar la prevención de la violencia machista con las y los jóvenes, dedicando todos los recursos necesarios para acompañar a la juventud en la construcción de relaciones basadas en el respeto, la libertad, la autonomía y la igualdad.

Este proceso preventivo incluye generar nuevos modelos de referencia que no atribuyan a los chicos y hombres una posición de privilegio sobre las chicas y las mujeres, dado que el origen de la violencia machista se encuentra en esa





menpekotasuna eta diskriminazioa betikotzen duen botere-harremanean dago. Beldur Barik programan Euskadiko udal eta erakundeek hartzen dute parte, eta helburua da sexismotik aldentzen diren neska-mutikoen jarrera positibo eta egunerokoak antzeman eta ikusaraztea, izan ere, jarrera horiek rol tradizionalekin hautsi eta gizarte berdintsuagoa eraikitzea dute xede.

Erakundeetatik indarkeria matxistaren kontrako ardua soziala eta politikoa gure gain hartu behar dugu, eta, horretarako, norberaren aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak berrikusi beharko ditugu. Era berean, legeak emakumeen defentsarako tresna eraginkorrak bihurtzeko konpromisoa hartuko dute erakundeek. Norberak erantzukizun horiek bere gain hartuz gero, aldaketarako konpromisoa lortuko da.

#### Eusko Legebiltzarrak:

- Irmo kondenatzen du Teresa Egurrolaren hilketa, ustez indarkeria matxista baten biktima izan baita, eta babesa helarazten die haren senide eta hurbilekoei.
- Gaitzesi egiten du sexu indarkeria edo bazterkeria adierazpen oro.
- Herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, emakumeen kontrako indarkeria-ekintza gehiago izan ez dadin eta, are gutxiago, Teresa Egurrolari bizia kendu diona bezalako hilketarik.
- Beldur Barik programaren edukiekin bat dator, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa".

relación de poder que perpetúa la subordinación y la discriminación de las mujeres. El programa Beldur Barik tiene como objetivo precisamente identificar y visibilizar esas actitudes cotidianas de chicas y chicos que se desmarcan del sexismo, que rompen con los roles tradicionales y se implican en la construcción de una sociedad igualitaria.

Desde las instituciones debemos asumir nuestra responsabilidad social y política ante la violencia machista, empezando por el ejercicio personal y colectivo de revisar nuestros prejuicios, roles y actitudes cotidianas. Asimismo, las instituciones asumirán el compromiso de que las leyes sean instrumentos eficaces para la defensa de las mujeres. Sólo de la asunción de éstas responsabilidades como propias se derivará el compromiso de cambio.

#### El Parlamento Vasco:

- Condena firmemente el asesinato de Teresa Egurrola, presunta víctima de un acto de violencia machista, y traslada su apoyo a los familiares y allegados de la víctima.
- Rechaza cualquier manifestación de violencia o discriminación sexista.
- Invita a la ciudadanía a adoptar compromisos personales y colectivos a favor de la igualdad entre mujeres y hombres para que no se vuelva a producir ningún acto de violencia contra las mujeres y, mucho menos, asesinatos como el que ha costado la vida a Teresa Egurrola.
- Comparte los contenidos del programa Beldur Barik, como herramienta para trabajar en la sensibilización y la prevención de la violencia machista con la juventud".





### 3. (berria) Adierazpen instituzionala, El País-en euskal edizioa kendu dutela-eta. [10\11\05\00\0001]

Presidenteak adierazpena irakurri du.

- "1. Eusko Legebiltzarrak, X. legealdiaren hasiera honetan, berriro adierazi nahi du herritarrengandik hurbil egoteko eta garden jokatzeko konpromisoa, herritarron ordezkari baita eta haien aurrean erantzun behar baitu bere jardunean. Horretarako, ezinbestekoa du hedabideetako profesionalen lana, Ganbera honen eta gizartearen arteko bitartekari baitira eta haiek helarazten baitizkiote gizarteari gure erabakiak eta erabakiok interpretatzen laguntzen baitute.
2. Alde horretatik, Eusko Legebiltzarrak bere kezka agertzen du El País-en euskal edizioa kendu dutelako, babesa adierazten die kaleratutako langileei eta berriro dio hori euskal errealitate politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalaren berezitasunen eta bertako erakundeen jardunaren jarraipen egokiaren kalterako izango dela. Uste dugu El País-en euskal edizioa kentzea berri txar bat dela euskal gizarte osoarentzat.
3. Eusko Legebiltzarrak uste du, hiritarrek informazioa izateko duten eskubideari dagokionez, kazetaritzako enpresak, nahiz eta pribatuak izan, jabetu beharko liratekeela funtzio publiko bat betetzen dutela. Horregatik, legebiltzar-taldeek eskatzen diegu enpresa horiei euren erantzukizuna bete dezatela.
4. Kazetaritzako enpresetan, baita El País bezala oraindik galera ekonomikorik jasan ez dutenetan ere, eragina duen krisi-testuinguru honetan, Eusko Legebiltzarrak berriz ere bere kezka adierazten du gero eta handiagoa den kazetaritzako lan- eta lanbide-baldintzen prekarizazioa eta hondatzea dela-eta. Egoera horrek informazioaren kalitatean eragiten du, arriskuan jartzen du herritarrek informazio egiazko eta askotarikoa jasotzeko duten eskubidea eta hedabideei galarazten die modu zintzo eta profesionalean kontrolatzeko eginkizuna, gizarte demokratiko guztietan nahitaezkoa dena.

### 3. (nuevo) Declaración institucional sobre la eliminación de la edición vasca de El País. [10\11\05\00\0001]

La presidenta da lectura a la declaración.

- "1. El Parlamento Vasco, en el inicio de su X Legislatura, quiere reiterar el compromiso de transparencia y aproximación a la ciudadanía a la que representa y ante la que debe responder de sus actuaciones. Para ello, le resulta imprescindible la labor de los profesionales de los medios de comunicación, como intermediarios entre esta Cámara y el resto de la sociedad, a la que dan cuenta y ayudan a interpretar nuestras decisiones.
2. En ese sentido, el Parlamento Vasco muestra su preocupación por la eliminación de la edición vasca de El País, apoya a los trabajadores despedidos y reitera que sin ello sufrirá el seguimiento adecuado de las singularidades de la realidad política, social, económica y cultural vasca y de la actividad de sus instituciones. Entendemos que la eliminación de la edición vasca de El País es una mala noticia para toda la sociedad vasca.
3. El Parlamento Vasco considera que el derecho de la ciudadanía a la información pasa por que las empresas periodísticas, aún siendo privadas, sean conscientes de que cumplen una función pública. Por ello, los grupos apelamos a esas empresas a que ejerzan su responsabilidad.
4. En un contexto de crisis, que también afecta a las empresas periodísticas, incluso a las que, como El País, no han experimentado aún pérdidas económicas, el Parlamento Vasco expresa de nuevo su preocupación por la creciente precarización y deterioro de las condiciones laborales y profesionales del periodismo. Esa circunstancia afecta a la calidad de la información, poniendo así en riesgo el derecho de los ciudadanos a recibir una información veraz y plural y hace perder a los medios de comunicación su función de control honesto y profesional, que resulta imprescindible en toda sociedad democrática





5. Legebiltzarrak adierazpen instituzional hau helaraziko die El País kazetaritza-enpresari eta informaziorako eskubidearen bermeak zaintzen dituzten elkarteei, jakinaren gainean egon daitezten Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren ordezkariak zer-nolako kezka duten ahalik eta ireki eta pluralena izan nahi duen sistema demokratikoaren funtsezko zutabeetako batean gertatzen ari denarengatik".

5. El Parlamento trasladará esta declaración institucional a la empresa periodística de El País y a las asociaciones que velan por las garantías del derecho a la información, a fin de que conozcan la preocupación de los representantes de los ciudadanos de la Comunidad Autónoma Vasca en torno a lo que está ocurriendo en uno de los pilares básicos de un sistema democrático que aspira a ser lo más abierto y plural posible".





#### **4. (berria) Adierazpen instituzionala, Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta. [10\11\05\00\0003]**

Presidenteak adierazpena irakurri du.

"Gaur, abenduak 3, Euskararen Egunean, Eusko Legebiltzarrak honako adierazpen instituzionala egin nahi du:

1. Euskara, herritar guztion hizkuntza izanik, guztiok batu eta aberasten gaituen hizkuntza izan behar da. Eusko Legebiltzarrak, euskararen inguruan ahalik eta adostasunik zabalenean oinarriturik, herritar eleaniztunak lortzeko pausoak egin nahi ditu
2. Eusko Legebiltzarretik, abenduaren 3a Euskararen Eguna aldarrikatu eta ospatzeaz gain, urteko egun guztiak euskararen egun bilakatu nahi ditugu, pertsona guztien hizkuntza-eskubideen errespetuan oinarrituta eta pertsona bakoitzaren atxikitze naturala eta bakoitzaren herritar izateko molde partikularra errespetatuz.
3. Euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza eta Euskadin gaztelaniarekin batera hizkuntza ofiziala izanik, Eusko Legebiltzarrak euskararen aldeko hizkuntza-politika orekatu eta sustatzailea bultzatuko du: euskararen erabilerearen aukera berriak zabaldu, gaur egungo politikak indartu eta aldi berrietara egokitu, herritar bakoitzaren hizkuntza-aukerari zor zaion errespetua bermatu eta eguneroko jardunean euskararen erabilera ahalbidetzeko jarrerak eta jokaerak indartu.
4. Eusko Legebiltzarrak, euskararen normalizazio sakondu eta urratsak ematen jarraitzeaz gain, Eusko Jaurlaritzarekin bide horretan elkarlanean aritzeko prestasuna adierazi nahi du.
5. Eusko Legebiltzarrak euskaraz ere bizi ahal izateko hizkuntza-politika orekatua bideratzeko konpromisoa adierazten die herritarrei".

#### **4. (nuevo) Declaración institucional con motivo del Día Internacional del Euskera. [10\11\05\00\0003]**

La presidenta da lectura a la declaración.

"Hoy, 3 de diciembre, Día del Euskera, el Parlamento Vasco quiere realizar la siguiente declaración institucional:

1. El euskera es la lengua de todas y todos, y, en ese sentido, ha de ser idioma de encuentro y enriquecimiento. El Parlamento Vasco, basándose en el mayor acuerdo posible en torno al euskera, quiere dar pasos en la consecución de una ciudadanía plurilingüe.
2. Además de reivindicar y celebrar este 3 de diciembre como Día del Euskera, el Parlamento Vasco desea que todos los días del año sean días del euskera, respetando los derechos lingüísticos de todas las personas, así como su adhesión natural y la forma particular de ejercer su ciudadanía.
3. Siendo el euskera lengua propia del pueblo vasco y, junto con el castellano, lengua oficial en Euskadi, el Parlamento Vasco llevará a cabo políticas equilibradas que den impulso a la lengua vasca: abrir nuevas oportunidades para el uso del euskera, reforzar las políticas actuales adecuándonos a los nuevos tiempos, garantizar el respeto que se debe a la opción lingüística de cada ciudadano y ciudadana y fortalecer los comportamientos que posibiliten el uso del euskera en nuestra práctica diaria.
4. El Parlamento Vasco, además de seguir dando pasos y profundizando en la normalización del euskera, quiere manifestar su disposición a trabajar junto al Gobierno Vasco en ese camino.
5. El Parlamento Vasco manifiesta a la ciudadanía su compromiso con una política lingüística equilibrada que posibilite poder vivir también en euskera".

